

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

25. BILERA AKTA

EGUNA: URTARRILAK 15, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ZUMARRA GELA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA

OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA

MAIRU ANTZERKI TALDEA

TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA

LESAKAKO ABESBATZA

LESAKAKO MUSIKA ESKOLA

LESAKAKO MUSIKA BANDA

TRIKITIXA ELKARTEA

LESAKAKO TXISTULARIAK

EH BIDU TALDEA

AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

2021EKO EMANALDIAK ETA GASTUAK

Harriondoako eta Udako Zikloko diru Irteera eta sarrerak azaltzen dira. Gutti gorabehera aurreikusitakoaren barruan dago. Bertzalde jaso diren dirulaguntzak ere aipatzen dira, Artea eta Kultura (kanpoan egiten diren ekitaldiak), Udal Platea Local (Txokobikon egiten diren ekitaldiak) eta Euskarabidea (euskaraz egiten diren ekitaldiak).

Honekin batera 2021eko balorazioa egiten da.

2022. AGENDA

2022ra begira dagoeneko badaude gauza batzuk hitzartuak, apirila adibidez ia osatua. Ongi egonen zen ekitaldien aurreikuspen orokor bat egitea, adibidez zehaztu disziplina eta publikoaren arabera ze emanaldi eta zenbat ekarri.

Dokumentalen inguruan zarak bere burua aurkeztu du hau kudeatzeko. Ongi ikusten da bino behar bada bai emanaldi kopurua bai aurrekontua zehaztu beharko zitzaion. Dokumentalen kopurua zehazten bada bertze disziplinen zehaztasuna ere egitea ongi egonen zen. Adibidez Xabier Erkiziaren dokumentala ekartzeko saiakera egitea aipatzen da.

Gaizkak aipatzen du Keinu Leihoak dela eta zaila dela esleitzen zaion partidarekin ikuskizunak nahi bezala ekartzea, hiru emanaldi ekartzeko beti negoziatzen ibili behar dire...proposatzen du jardunaldien barruan Udalak bere gain antzerki potente bate do ekartzea, jardunaldiak indartzen dire eta bertze bi ikuskizunetarako diru gehiago geratzen da.

IHAUTERIAK

Kartel lehiaketa martxan da, igandeko musika taldea ere lotuta, ortziralean, otsailak 25, tailer modukoren bat egitea pentsatzen ari da...printzipioz dena martxan egiteko intentzioarekin.

ERAGILEEKIN BILERAK

Otsailan eragile desberdinekin bilerak egingen dira aurreko urteetan bezala.

2022RAKO AURREKONTUA

2021eko aurrekontu bera izanen da kultura arloan. Kulturara diru gehiago destinatzea aipatzen da. Honen arira eta 2023ko aurrekontuei begira 2021eko memoria eta lehendabiziko hilabete hauetako informazioaren txostena egin eta partida haunditzeko eskaera egitea proposatzen da.

MERKATU TTIKIA

Urtarrilan berriz ekingo diote merkatu ttikiari bino bai eskatu edo proposatzen dute goiz horretan merkatua girotzeko ekitaldi batekin edo lotzea. Gaizkak aipatzen du maiatzako merkatu ttikiaren egunean bai aurreikusita omen dute zerbait egitea.

KEZKAK ETA GALDERAK

Gaizkak bi kezka planteatzen ditu udalaren euskararen erabileraren inguruan:

- Sarrera salmenta plataforman, euskarazko bertsioan, ailegatzen da momento bat gazteleraz dagoena.
- Olentzeroren gynkanaren inguruan, hiztegi aldetik eta euskara aldetik gehiago zaindu